

ABERASTASUNAREN BANAKETA NAFARROAN
ELAren BALORAZIOA

2009ko ekainak 16

ERRENTAREN BANAKETA NAFARROAN

0.- Sarrera

Sortzen den errenta modu ezberdinean banatzen da pertsonen eta gizarte-klaseen artean. Ekonomiaren hazkunde garaian, errentaren banaketaren bilakaera kaltegarri suertatu zaio langileriari, eta onurak ekarri dizkio, berriz, enpresaburuen eta kapitalaren errentei. Azterketa honetan, errentaren banaketaren inguruan, 2008an gertaturikoa ikusiko dugu.

1.- Errentaren banaketa

Nafarroako BPGd-a 1.043,1 miloi eurotan hazi zen 2007tik 2008ra (18.428,5 miloi eurotik, 19.471,6 milioietara pasaz), horrek esan nahi du %5,4eko gehikuntza nominala gertatu dela (%1,9koa termino errealean).

Hala ere, 2008ko azken hiruhilabetea, krisi ekonomikoaren ondorioak argi nabaritu ziren.

Errentaren banaketa aztertuz, 2007tik 2008ko epealdian lan errentak BPGd-arekiko 0,6 puntu galdu dituztela ikus dezakegu (%44,7tik %44,1era pasaz), ustiapen soberakin gordina (enpresaburuen eta kapitalaren errentak) BPGd-arekiko 1,3 puntu hazi den bitartean (%43,3tik, %44,6era pasaz).

Datu hauek eurotan bihurtuz, eta 2007an BPGd-arekiko zegoen partaidetza mantenduz gero, soldatapeko biztanleriak 111,9 miloi euro gehiago irabazi izanen zituen 2008an.

ERRENTAREN BANAKETA NAFARROAN (BPGd %).

2007-2008

	2007	2008
Soldatapeko langileen ordainketa	44,7	44,1
Ustiapeneko soberakin gordina	43,3	44,6


Iturria: IEN

Errentaren banaketaren bilakaera 2000. urtetik aztertuz (ez baitugu lehenagoko informazio homogeneorik), argi geratzen da aberastasunaren banaketa soldatapekoen kaltetan egin

dela beti, ustiapen soberakin gordinak onurak atera dituen bitartean, errentan bere pisua handituz.

ERRENTAREN BANAKETA NAFARROAN (BPGd %).

2000-2008



Iturria: IEN

Soldatapeko langileen ordaina 2000an BPGd-aren %47,0 izan zen, eta 2008an %44,1 izatera pasa da, hau da, 2,9 puntu galdu ditu 8 urteetan.

Soldatapeko langileen ordainketak BPGd-ean galdu duen partaidetzarengatik, 564,6 miloi euro irabazi gabe utzi ditu 2000tik 2008ra, eta soldatapeko langile bakoitzak 2.427 euro utzi ditu irabazi gabe urtean bat az bestea.

LANAREN ERRENTEN GALERA.

NAFARROA, 2007-2008

Lanaren errentak, guztira	564,6 milioi euro
Soldatapeko langile bakoitzeko	2.427 euro

Iturria: IEN

Ustiapeneko soberakin gordinak, berriz, errentaren banaketan bere partaidetza handitu du, 2000ko %43,0tik, 2008ko %44,6era pasaz, 1,6 puntuko handitzea.

2.- Ondorioak

lazko urte arte hazkunde ekonomiko garaia bizi izan dugu. Ezarritako politiken emaitza (Gobernuak ezarriak, eta enpresetan ezarri direnak) errentaren banaketaren bilakaeran antzematen da. 2008an, oraingo ekonomia fase berri honetako lehen urtean, lanaren errentak indarra galdu dute aberastasunarekiko, enpresaburuen eta kapitalaren errentak beren partaidetza handitu duten bitartean. Honela, krisiaren ondorioek ez gaituztela denoi berdin eragiten argi geratzen da, langileria baikara kaltetuak.

Modu honetan hazkunde ekonomikoa eman den azken urteetako bilakaera mantentzen da. Hau da, bai hazkunde ekonomiko garaian, zein hazkunde gabeko garaian, ustiapen soberakin gordinak indarra hartzen jarraitzen du BPGd-ean.

Oraingo egoera ekonomikoan soldatapekoen ordainketak BPGd-ean pisua galtzeak, eta enpresaburu eta kapitalaren errentak irabazteak, krisiaren ondorioak nora bideratzen ari diren adierazten du. Lanaren errentek, krisiaren errudun ez direnak, krisiarengatik kaltetuak dira. Bien bitartean, enpresaburu eta kapitalaren errentak partaidetza handiagoa irabazten dute.

Politika publikoek enpresa eta kapitalaren irabaziak krisitik indartuta ateratzea bilatzen dute, eta honek, egoera are larriagoa bihurtuko du.